



**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

*Sexu-esplotaziora  
bideratutako*

**EMAKUMEEN ETA  
NESKATOEN salerosketa**

*Euskadin: beharrak eta  
proposamenak*





**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

*Sexu-esplotaziora  
bideratutako*  
**EMAKUMEEN ETA**  
**NESKATOEN salerosketa**  
*Euskadin: beharrak eta  
proposamenak*

Izenburua: Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketa Euskadin: beharrak eta proposamenak.

Egilea: Carmen Meneses Falcónek koordinatutako ikerketa-taldea

Argitaratzailea: Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.  
Manuel Iradier, 36 - 01005 Vitoria-Gasteiz

Diseinu eta maketazioa: EPS Comunicación

Inprimaketa: EPS Comunicación

L.G.: G 00042-2021



## AURKIBIDEA

<b>ESKERRAK</b> .....	7
<b>1. Emakumezkoen prostituzioa eta sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa zenbatestea Euskadin</b> .....	9
<b>2. Salerosketaren biktima diren emakumeen ezaugarriak eta beharrak</b> ....	12
<b>3. Euskadin bizi diren gizonei eginiko inkesta</b> .....	13
<b>4. Proposamenak</b> .....	14



## **ESKERRAK**

Eskerrak eman nahi dizkiogu EMAKUNDEri ikerketa hau egiteko aukera emateagatik. Haren bidez, hain zuzen, gizakien salerosketaren aurka borrokatzen lagundu nahi dugu. Lan hau egin ahal izan dugu, bereziki, Euskadiko Fiskaltzako eta segurtasun-indarretako –Ertzaintza, Polizia Nazionalea eta Guardia Zibila– kideen, GKEen (ASKABIDE, AUKERA, CÁRITAS, CEAR, Donostiako eta Gasteizko HIESAREN AURKAKO BATZORDEAK, GURUTZE GORRIA, AHIZ-PA OBLATUAK, GIZARTERAKO, MUNDUKO MEDIKUAK), Euskadiko enpresaburuen eta Gasteizen prostituzioaren inguruko emakumeen ekarpenei eta parte-hartzeari esker. Beren lankidetzarik, interesik eta laguntzarik gabe ezin egin genezakeen azterlan hau. Espero dugu, bada, profesionalentzat baliagarria izatea egunero egiten duten lan zoragarriako.





Gizakien salerosketa gaur egungo gizarteko deliturik larrienetariko bat da, inplikaturik dauden pertsonen giza eskubideak urratzen baititu. Txosten honetan, sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketan oinarrituko gara, argi utzita ez dela pertsonak esklabo bihurtzeko modalitate bakarra. Hori horrela, Palermoko Protokoloari jarraikiz, Espainiako Zigor Kodearen 117. bis artikuluan jasota dagoenaren arabera<sup>1</sup>, beste helburu batzuetarako esplotazioak daude (delitu-jardueretarako, eskaletasunerako, organoak erauzteko edota ezkontza behartuetarako).

Dokumentu exekutibo honetan, proposatutako helburuei erantzuten zaie: emakumezkoen prostituzioa eta sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa zenbatestea Euskadin; salerosketaren biktime diren emakumeen ezaugarriak eta beharrak deskribatzea; Euskadin bizi diren gizonen salerosketaren inguruan duten ezagutza aztertzea, eta biktimekin esku hartzeko eta delitua zigortzeko hobekuntzak proposatzea.

## **1. Emakumezkoen prostituzioa eta sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa zenbatestea Euskadin**

Aldi berean eta elkarlanean garatutako eremu-ikerketaren ondorioz, zehaztu genezake, 2018an, prostituzioaren inguruan 1.968 eta 2.308 emakume artean zeudela Euskadin. Espainiako estatuan gertatzen den bezala, emakume horien gehiengoa beste herrialde batzuetakoa da; eskuarki, Latinoamerikakoa eta Ekialdeko Europakoa. Era berean, Espainiako emakumeen talde txiki bat aurki daiteke, baita hainbat nazionalitateko talde bat ere, non Saharaz hegoaldeko emakumeak gailentzen diren.

---

<sup>1</sup> Zigor Kodean 2015. urtean egin ziren aldaketetan helburu berri horiek sartzen dira, baina ez daude jasota 2010. urteko artikuluen sarreran.

**1. taula. EAEn prostituzioaren inguruko emakumeen zenbatespen-tartea**

2018	Z1 (Deustu)	Z2 (Koord.)
<b>Kalea</b>	77	100
<b>Klubak</b>	896	688
<b>Agentziak</b>	307	1520
<b>Partikularrak</b>	688	
<b>Guztira</b>	1.968	2.308

Iturria: guk geuk egina.

EAEko lurralde historikoen arabera banatuta, ikus daiteke Bizkaian dagoela prostituzioaren modalitate edo testuinguru guztietan emakume gehien, gainerako lurraldeen gainetik. Euskadin egin diren beste ikerlan batzuekin alderatuta, harremanak izateko lokaletan prostituzioan aritzen diren emakumeen kopuruak behera egin du, eta pisuetan aritzen direnen kopurua, aldiz, handitu egin da.

**2. taula. Testuinguru desberdinetan prostituzioaren inguruko emakumeen zenbatespen-tartea, lurralde historikoaren arabera**

2018	Bizkaia		Araba		Gipuzkoa	
	E1	E2	E1	E2	E1	E2
<b>Kalea</b>	41	50	24	30	12	20
<b>Kluba</b>	546	340	102	156	248	192
<b>Agentziak/ Pisuak</b>	177	800	31	200	99	520
<b>Guztira</b>	764	1190	157	386	359	732

Iturria: guk geuk egina.

Sexu-esplotaziorako salerosketa hiru testuinguru nagusitan dago: prostituzioa, pornografia eta masaje erotikoa. Hala ere, bereziki, Euskadin, prostituzioak dauka biktima kopuru handiena. Ez dakigunez sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimen kopuru zehatza, atal honetan ematen ditugun datuak zenbatespenak dira, zaila baita zifra horiek kontabilizatzea bortxazko prostituzioa eta induzitutako prostituzioa kontuan izan gabe. Dena dela, salerosketa-egoera bizi dezaketen emakumeak ez daude berdin banatuta prostituzio-testuinguru guztietan. GKEak bat zetozen datu batzuetan: biktima kopuru handia zegoen Saharaz hegoaldeko emakumeen artean eta kalean detektatu direnen artean. Baina, harremanak izateko klubetako eta beste jatorri batzuetako biktimei dagokienez, zenbatespenak txikiagoak eta aldakorrek ziren. Ez dago salerosketaren biktima diren emakumeen kopuru zehatzik (beti egongo da ezkutuko sektore bat; zaila da indarkeria-egoerak bereiztea eta beste egoera batzuekin ez nahastea; profilak nahiz jatorriak maiz aldatzen dira eta abar). Ikerketa honen esparruan

elkarrizketatu ziren pertsona guztiek ((fiskaltzakoak, poliziakoak nahiz GKEetakoak) esan zuten egoera hori ez zela nagusi prostituzioaren inguruko emakumeen artean. Elkarrizketatutako pertsonengandik bildutako datuen arabera, uste da sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimen kopurua % 10 eta % 15 artekoa dela. Ildo horretan, antzemandako biktimak hartzen dira kontuan; izan ere, polizia-kidegoen datuen arabera, Euskadin, azken 15 urteotan, 46 biktima antzeman dira. Datu horiekin ondoriozta dezakegu ez dutela hainbeste emakumek jasaten egoera hori; beraz, ez dator bat komunikabideetan zabaltzen diren informazio batzuekin. Hala ere, datu horiek ere biktimak detektatzeko dugun sistemaren inguruan hausnartzera eramán gaitzakete, antzeman eta identifikatu diren biktimen artean, ziurrenik, ez daudelako guztiak, edota oztopoak daudelako helburu horrez arduratzen diren profesionalak antzeman eta identifikatzeko, bai eta biktimak ere, ez baitute beti lana errazten.

Prostituzioaren arloan esku hartzen duten polizia-kidegoei eta GKEei eskatu diegu 2018ko datuak emateko<sup>2</sup>, horietan oinarrituta, biktimen gutxieneko bat ezarri eta zenbatespenak egin ahal izateko. Ezin izan ditugu lortu prostituzioaren testuinguruetan zuzenean lan egiten duten polizia-kidego eta GKE guztien datuak. Aurkezten diren datuak behin-behinekoak dira; txosten hau egiteko eskatu genituen (2019ko urtarrilean eman zizkiguten), eta, beharbada, erakundeen behin betiko memoriak egiterakoan, datuek gora edo behera egin dezakete, kontabilitate bikoitza egin daitekeelako.

**18. taula.** Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimen inguruko 2018ko datuak

Polizia- kidegoak	Antzemandako emakume kop.	Identifikatutako emakume kop.	Ikerketa kop.	Atxilotutako/ ikertutako pertsona kop.
Afrika	8+34	8	4	7
Amerika	3+17	3+5	1	2 +2
Ekialdeko Europa	2	1		
Asia	28		1	1
Espainiarrak				2
<b>GUZTIRA</b>	<b>92</b>	<b>17</b>	<b>6</b>	<b>14</b>

Iturria: polizia-kidegoek emandako datuak.

<sup>2</sup> Polizia-kidegoek eta erakundeek arrazoi desberdinengatik ezin izan diote erantzun gure eskaerari.

### 19. taula. Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimen inguruko 2018ko datuak

GKEak	Arreta eman zaien emakumeen kop.	Slerosketarekin lotutako 3 adierazletan edo gehiagotan antzemandako emakume kop.	Poliziak identifikatutako emakume kop.
Afrika	143	63	18
Amerika	957	54	25
Ekialdeko Europa	73	1	3
Asia	23		
Espainiarrak	43		
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.239</b>	<b>118</b>	<b>46</b>

Iturria: 5 GKEk emandako datuak (Bilboko 3k eta Gasteizko 2k).

18. taulak –polizia-kidegoen informaziotik ateratako datuak ditu– erakusten du polizia-lanari esker, 2018. urtean, salerosketaren biktima izan litezkeen 92 emakume antzeman zirela eta 17 identifikatu. Beharbada, kasu kopuru horretan errepikapenak daude, beren memorieta agertzen ziren biktimak ziren eta.

19. taulan, prostituzioaren testuinguruetan gehien ezarrita zeuden eta lan-karga handiena zuten GKEek –batez ere Bilbokoek eta Gasteizkoek– emandako datuak erakusten dira<sup>3</sup>. Testuinguru desberdinetan prostituzio-egoeran dauden 1.239 emakumeri eman zaie arreta, eta horietatik 118, alegia, % 9,5, sexu-esplotaziora bideratutako hiru salerosketa-adierazlerekin edo gehiagorekin identifikatu zituzten erakundeek. Uste dugu zifra horietan, aipatu dugun bezala, ez daudela 2018an zehar sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa-egoera jasan zuten emakume guztiak. Euskadin prostituzioaren inguruko emakumeen zenbatespena 1.968 eta 2.308 artekoa bada, salerosketaren biktima izan daitezkeen emakumeen % 10 aplikatuta esan genezake, 2018an, 196-230 emakume izan zirela salerosketaren biktima; hau da, zenbatespenak egokiak izango balira, GKEek biktimen % 51,5 eta % 60 artean antzemango zituzten. Horrek esan nahiko luke biktima gisa identifikatutako 46 emakumeak<sup>4</sup> % 20 inguru izango lirakeela (salerosketa-egoeran dauden 230 emakumeren guztizkotik). Zenbatespen horiek bat datoz beste lan batzuetan egindako zenbatespenekin (Steinfatt eta Baker, 2011; Steinfatt, 2011; Van Dijk, 2015), eta egiten diren azterlanetan berretsi edo ezeztatu beharko dira.

<sup>3</sup> Datuak eman ahal izan ez zituzten gainerako GKEek bigarren mailako lan bat egiten dute; beraz, beraien ekarpena oso txikia izango litzateke, arreta eman zaien eta biktima izan daitezkeen prostituzioko emakumeen kopuruari dagokionez.

<sup>4</sup> Zifra hori puztuta dago, bi arrazoirengatik: lehenik eta behin, ez dagoenez kode baten bidezko erregistrorik, identifikatu diren biktimak bi edo hiru GKEtatik edo bi polizia-kidegotatik igaro ahal izan dira, eta ondorioz, beraien memorieta erregistratuta geratzen dira. Bigarrenik, poliziak eta dagokion GKEk biktimak identifikatu ahal izan ditu, baina ez dute identifikazio-izapideak egiten jarraitu nahi. Hala ere, izapideak egin ez arren, poliziaren edo GKEen erregistroetan, identifikatutako biktima gisa zenbatzen dira. Erregistro bateratu batek bikoiztasunak ekiditen lagunduko luke. Izan ere, 2018an ez ziren 46 biktima identifikatu, ezta 17 ere (horiek jakinarazi zituen poliziak). Uste dugu urte hartan dozena bat biktima identifikatu zutela polizia-kidego.

## 2. Salerosketaren biktima diren emakumeen ezaugarriak eta beharrak

Azken urteetan Euskadin antzeman eta identifikatu diren salerosketaren biktima guztiak atzeritarrak ziren, Espainiako estatuan bezala. Emakumeak garapen-bidean dauden Latinoamerikako herrialdeetakoak, Asiakoak, Afrikakoak eta Ekialdeko Europakoak ziren, 18 eta 35 urte bitarte zituzten eta gehienak ama ziren. Jatorri-herrialdeak, hala ere, aldatu egiten dira hainbat arrazoiengatik; besteak beste, une bakoitzean nagusi diren migrazio-fluxuengatik.

Prostituzio-testuinguruetan lan egiten duten GKEek prostituzioan salerosketa, trafikoa eta abusua edo esplotazioa gertatzen zen bereizteko ezagutza nahikoa zuten; salerosketa zen gutxien gertatzen zen egoera, eta, nagusiki, kalean detektatu diren Saharaz hegoaldeko emakumeak ziren. Zailagoa zen Asiako jatorriko emakumeekin harremanetan jartzea, hermetikoak direlako eta hizkuntza ezagutzen ez dutelako; horregatik, zaila zen sektore horretako biktima kopurua kalkulatzeko.

Oro har, salerosketaren biktima ziren emakumeak antzemateak bi zailtasun zituen: alde batetik, prostituzioaren testuinguru ezkutuenetan sartzea (GKEek ezin zuten emakumeekin hitz egin), eta bestetik, biktimek bizi zuten esplotazio-egoeraz hitz egiteko edo biktima zirela aitortzeko sentitzen zuten beldurra eta mesfidantza. Hala ere, GKEen arteko koordinazio onak eta gertatzen ari zenaren inguruko ezagutzak izateak erraztu egiten zuen biktimak antzemateko lana, eta ezkutuko sektorea txikia zela jo zen. Dena dela, biktimak antzeman eta identifikatzeari dagokionez, Euskadiko sektore profesional guztiek salerosketa-adierazleetan bat etorri behar dute, zerbitzu edo erakunde bakoitzak propioak ere izan ditzakeen arren.

Beharrezkoa denean, polizia-kidegoek GKEen laguntzarekin identifikatzen dituzte biktimak. Hala ere, horrela jokatzeko (Espainiako estatuan bezala) oso zaila da, biktimak ez direlako poliziaz fidatzen. Gainera, polizia-kidegoek, laguntza puntuala baino, lankidetzaren sistematikoagoa behar dute. Ongi identifikatzea funtsezkoa da biktimek behar dituzten baliabideak eta babesa diseinatzeko.

Hori horrela, arriskuaren balorazioa eta polizia-kidegoek ematen duten babesa egokiak badira ere, bikainak izan daitezkeen, esku-hartze orokorra biktima bakoitzaren eskubideak bermatuko dituen diziplinarteko talde bat eratuta bideratu beharko litzateke. Talde horrek biktimekin behar sozialak, segurtasunekoak eta juridikoak identifikatu eta baloratu beharko litzateke biktima antzematen den unetik, bermatuta hasieratik eta esku-hartze osoan zehar abokatutzako profesional adituak izango dituztela beraiekin.

Egiaztatu da GKEen eta polizia-kidegoen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren onak dela, baina etorkizuneko agendan egon beharko liratekeen hobekuntza batzuk gertatzen dira. Era berean, ikusi da salerosketan espezifikoki lan egiten ez duten Euskadiko zerbitzu publiko sozial, sanitario eta juridikoetako profesionalen gaiaren inguruko ezagutza-falta dutela.

Salerosketa-delituagatik izapidetu diren emakumeen kopurua, une honetan, urria da Euskadin, nahiz eta, azken urteetan, kopurua areagotu dela hauteman den. Ikusi da kasu ugari inhibititu direla bai Euskadiko auzitegietan baita auzitegi nagusietan ere (Auzitegi Nazionala), eta hori izan daiteke EAEko auzitegien epairik ez egotearen arrazoia.

Lortu diren datuei esker ikusi da Saharaz hegoaldeko tratulari-sare bat dagoela Bizkaian ezarrita (Bilbon), eta bere xede nagusia da Europara doazen emakumeen zirkulazioa erraztea. Horietako gutxi batzuk esplotatzen dituzte Euskadin. Dena dela, salerosketak Euskadin mugitzen duen diru kopurua beste delitu batzuekin mugitzen den kopurua baino txikiagoa da, urteko bost milioi euro baino gutxiago mugitzen dira eta.

Euskadi biktimei arreta emateko programa bat diseinatu eta ezartzeko une oso egokian dago, kontuan izanda GKEek, polizia-kidegoek eta administrazio publikoak egin dituzten ahaleginak, eta aitzindari izan daiteke estatu mailan, oraingoz duen kopurua urria delako eta egoera-aldaketa baterako presta daitekeelako.

### 3. Euskadin bizi diren gizonen eginiko inkesta

Hainbat gizonen prostituzioari buruz eta sexu-esplotaziora bideratutako salerosketari buruz zuten esperientziak eta iritziak jaso genituen. 508 gizonen lagin bat atera zen, nahiz eta 502 gizonen erantzun zieten egin ziren galdera guztiei. Lagina Euskadin bizi ziren 18 eta 70 urte arteko gizonen zuzenduta zegoen. Inkesta telefonoz egin zen.

Inkestatu ziren Euskadiko 508 gizonetik % 19,1ek (97 gizonen) ordaindu du noizbait sexu-zerbitzuren bat. Sexu-zerbitzuren bat ordaindu duten gizonen artean, % 16,5ek (16 gizonen) azken urtean ordaindu dute; hau da, inkestatu direnen % 3,1ek. Estatu mailako beste eredu edo ausazko inkesta batzuekin alderatuta, esan genezake Euskadin bizi diren gizonen, oro har, ez dituztela sexu-zerbitzuak ordaintzen; gutxiengoak egiten duen zerbait da. Datu horiek azken inkestetan lortutako datuen azpitik daude: EEIk 2003an egin zuen sexu-ohiturei buruzko inkestan, % 27,3k ordaintzen zituzten zerbitzu horiek; inkesta horren ondoren egindako Belza et al.-en (2008) laginaren azterketan, % 25,4k ordaindu zuten; eta Meneses et al.-ek (2018) egin zuten ausazko telefono-inkesta batean, gizonen % 20k ordaindu zuten 2015ean. Edonola ere, Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) inkestaren arabera, zifra txikiagoa da..

20. taula. Espainian sexu-zerbitzuak ordaintzeari buruzko inkestaren arteko alderaketa

	Noizbait	Azken urtean	n	Oharrak
EEI, 2003	% 27,3	% 6,7	10.838	18-49urte
Belza et al, 2008	% 25,4 (n=1.306)	% 5,7 (n=293)	5.153gizon	18-49urte
CIS, 2009	% 9,7 (n=473)		1. 850 4.832gizon	16 ≥ 65 urte
Meneses et al, 2015 (2018)	% 20,3 (n=213)	% 15 (n=32) Gutzizkoaren % 3	1.048 gizon	18-70 urte
Euskadi, 2018	% 19,1 (n=97)	% 16,5 (n=16) Gutzizkoaren % 3,1	508 gizon	18-70 urte

Euskadin bizi diren eta sexu-zerbitzuak ordaindu dituzten gizonek salerosketaren inguruan duten ezagutzari dagokionez, zera nabarmendu behar da:

- 1) Inkestatutako gizonen gehiengoak (% 90) sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren berri izan du inoiz; nagusiki, komunikabide sozialen bidez (% 95). Dena dela, gizakien salerosketaren egoerari buruzko informazio-falta daukate; izan ere, laginaren heren batek bakarrik uste zuen informazio nahikoa zuela. Hortaz, inkestatuen % 91ren iritzian, salerosketari buruzko informazio gehiago eman beharko litzaieke gizonezkoei. Eraitza hori Euskadin bizi diren pertsoneri eta, bereziki, gizonei, zuzendutako informazio-kanpainak ezartzeko aukera da.
- 2) Gizonen gehiengoak (% 85) poliziari deituko lioke salerosketaren biktima den emakume bat antzemanaz gero, eta ez dago desberdintasunik alderatzen ari garen bi gizon-taldearen artean. Oso garrantzitsua da datu hori kontuan izatea, gizonezkoek, hainbat azterlanetan proposatu den bezala, salerosketari aurre egiten lagun dezaten (Meneses et al, 2018).
- 3) Hori horrela, bezeroen % 6,6k baieztatu zuen noizbait emakumeren bat prostituzio koaktiboaren testuinguruan aurkitu zuela, baina ia % 40k ez zekien edo ez zegoen ziur. Horrez gain, % 5,5ek adingabe bat ikusi dute –edo adingabea zela uste dute– prostituziorako lekuetan. Datu horiek berretsi eta erakutsi dute gizonezkoei sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketari buruzko informazioa eman behar zaiela, gertatzen diren egoerak salatu ditzaten.

## 4. Proposamenak

Ondorioak ateratzerakoan, etorkizunean heldu behar diegun premia gisa zehaztu diren alderdi asko daude. Hala ere, errepikatu egingo dugun arren, jarraian zehaztuko ditugu, garrantzi gehiago emateko.

1. «Salerosketa», «trafiko» eta «sexu-esplotazio» kontzeptuak argitu beharko lirateke prostituzioari eta salerosketari buruz hitz egiten den foroetan. Orokorrean, prostituzioaren testuinguruetan esku hartzen duten GKEek behar bezala bereizten dituzte, baina diskurtso publikoan ezjakintasun eta nahaste handia dago, eta horri heldu behar zaio, salerosketaren biktimei arreta emateko ekintzei negatiboki ez eragiteko.
2. Zaila da zehaztea zenbat emakume izan daitezkeen salerosketaren biktima, baina ezinbestekoa da behar diren baliabideak diseinatu ahal izateko. Euskadik urtero sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktima diren emakumeekin eta neskatuekin (antzeman eta identifikatu direnak) lotutako informazioa eta behar diren baliabideak biltzen duen informazio-base komun bat sortzeko behar diren baldintzak ditu. Hala, profil-aldaketak eta Espainiako estatura eta Europara zuzendutako zirkulazioa ez ezik, sareen jarduteko era desberdinak ere egiaztatu ahalko lirateke. Arlo

hori poliziaren eskumenekoa den arren, GKEek polizia-kidegoentzat eta, bereziki, Ertzaintzarentzat baliotsua den informazioa izan dezakete.

3. Oso eraginkorra izango litzateke erakunde desberdinek salerosketarekin lotuta erabiltzen dituzten adierazleak partekatzea eta adierazle komunak biltzen dituen antzemateko eta identifikatzeko protokolo bat izatea, nahiz eta batzuk beti erakundeak diren, egiten duten lanaren arabera delako; bai eta, beraien artean, lehenetasunak ezartzea ere.
4. Sexu-esplotaziora bideratutako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeei eta neskatoei arreta emateko diziplina anitzeko talde bat eratzeak-administrazio publikoak Euskadi osorako sustatuta- txosten honetan nabarmendu diren erronkei eta beharrei aurre egiten lagundu dezake. Talde hori erreferentziako talde profesionala izango litzateke biktimekin esku hartzeko prozesu osoan: identifikazio-prozesuan eta deklarazioetan eta salaketetan laguntzeko prozesuan; biktimen eskubideak babestuko dituen letradu bat eskatzean edo kudeatzean; biktimek behar dituzten baliabide guztiak -bereziki, babesarekin eta dokumentazioarekin lotutakoak- kudeatzean; epaileek eta fiskalek behar duten babesean eta biktimei arreta ematearekin eta delitua zigortzearekin lotuta sor daitezkeen alderdi guztietan.
5. Abokatutzako ofiziozko txanda espezifiko edo espezializatu bat sortzea, edo orain dauden txandetako batean -adibidez, *Atzerritarrena*, edo *GI*- prestakuntza ematea, biktimak identifikatzean eta babestean, babes-neurriak betetzean eta giza eskubideak berrezartzean, laguntza juridikoa bere gain hartzen duena. Hori, genero-indarkeriaren kasuetan bezala, oso onuragarria izango litzateke biktima diren emakumeentzat.
6. Euskadiko egoitza-baliabideak egokitzeari dagokionez, datozen urteetan heldu beharko zaio horri. Polizia-kidegoek nahiz GKEek lan handia egin dute salerosketaren biktima izan daitezkeen emakumeak antzemateko, eta, askotan, administrazio publikoek babesten dute. Lan horrek emaitza garrantzitsuak eskaini eta Euskadin salerosketaren biktima diren emakumeen kopurua handitu dezake; batez ere, Euskadin, Frantziako mugatik gertu dagoenez, tratulari-sareak daudelako. Baliabide sozialak egokitu beharko dira, gertuko etorkizunean, egoitza-laguntza eskaintzeko salerosketaren biktima diren pertsonen talde handi bati.
7. Egoitzarekin lotuta ez dauden eta biktimek behar duten laguntza, jarraipena eta arreta bermatzen duten baliabideak babesten eta areagotzen jarraitu behar da. Biktima guztiek ez dute egoitza-baliabide bat behar, eta laguntzak eta babesak ez dira egoera horren arabera baldintzatu behar, ez eta salaketa jartzearen arabera ere.
8. GKEetako profesionalei ez diete sartzten uzten prostituzioaren inguruko pisu eta espaziotan, eta horiek polizia-kidegoek ikuskatu behar dituzte; izan ere, horietako askok ez dute etxe partikular gisa jarduten, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten espazio gisa baizik.
9. Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketari buruzko koordinazio-mahaiaren ekimenarekin aurrera egin behar da. EMAKUNDEk sus-



tatu eta koordinatzen du ekimen hori, eta parte hartzen ez duten eta informazio garrantzitsua eman dezaketen instituzioek nahiz profesionalek bat egin beharko lukete.

10. Euskadin bizi diren gizonei egin zitzaien inkestari esker, argi utzi da batzuek salerosketaren berri izan dutela baina ez dutela gaiaren inguruko informazio nahikorik. Euskadin bizi diren gizonak -bereziki, sexu-zerbitzuak ordaintzen dituztenak- sentsibilizatu behar dira eta informazio gehiago eman behar zaie.



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

*Sexu-esplotaziora bideratutako*  
**EMAKUMEEN ETA NESKATOEN**  
*salerosketa Euskadin: beharrak eta*  
*proposamenak*